
Gorputza desagertzen denean
Mugatxoan
Donostia. Otsaila 2012

Iazko azaroan Artelekun uholde handiak izan ziren eta horien ondorioz, hurrengo hilabeteetarako aurreikusita zegoen egitaraua deslokalizatu egin zen, beste zentro batzuetara eramanez. Gure kasuan, eta Artiumek eskainitako laguntzari esker abenduan Gasteizen izan ginen, eta orain San Telmo Museoak hartuko du Mugatxoan-en *Gorputza desagertzen denean* proiektuaren bigarren atala.

Gorputza desagertzen denean proiektuaren helburua zenbait forma/praktikaren esperimentazioan oinarrituta, diskurtsoa sortzean datza. Praktika horiek testuinguru ezberdinetan garatzea proposatzen du, zalantzan jarriz egungo formatu diskurtsiboan esperimentazioa, performancea argitalpen gisa eta praktika hauek plazaratzea ikuslego berri eta zabalago baten aurrean. Proiektu honek, urtean zehar, hainbat une ikusgarri izango ditu eta bigarren atal honetan, *0 Emanaldia* saioa aurkezten du.

0 Emanaldia performancez, hitzaldiz, solasaldiz eta esku hartzeaz hornitutako irratia da, aldiberean gertatuko dena STM-ko Laborategian eta irrati libre batean. Irratia orainaldia edo beste orainaldi bat sortzeko duen gaitasunagatik, ez bitarteko gisa, baizik eta performanceak «datzan» eta performancea oinarritzen den leku gisa, modu horretan zeinuaren baliozkotasuna traslazioan eta formatu honetara egokitzean bilatuz.

Esperientzia prozesual eta ireki honen bitartez, performancearen eremuan objektu immaterialaren eta ikuslearen artean sortzen diren harreman-praktikak eta euren modu presentzialetik kanpo elementu horietako batzuen garapena aktibatzen da, modu diskurtsiboagoen mesedetan. Saio hau proposatzen diren jardueren pertzepzioa horiek gertatzen diren lekutik kanpora deslokalizatzeko saiakera bat da. Nola egon, egon gabe? Soinua desmaterializaziorako bitarteko gisa.

Gorputza desagertzen denean
Mugatxoan
0 emanaldia

Otsailak 24, 18:00–21:00

Cuaderno 0
Blanca Calvo, Ion Munduate, Sandra Cuesta,
Loreto Martínez-Troncoso, Víctor Iriarte.

Futuro simple, futuro imperfecto
Espe López –Txubio Fdz Jauregi

Montevideo (versión 2)
Víctor Iriarte

Otsailak 25, 18:00–21:00

Hacia una resistencia sin cuerpo
Manuel Cirauqui

Sirocco
Inazio Escudero

Scripted Smalltalk
Krõõt Juurak

Otsailak 26, 18:00–21:00

Tanatofonías
Manuel Cirauqui

(...continuará) o en el camino o...
L Martínez-Troncoso, Lore Gablier

Ahora
Sandra Cuesta

0 emanaldia
Otsailak 24
18:00–21:00

A

Cuaderno 0. *Cuando el cuerpo desaparece*
Mugatxoan

Azken hamar urteotan, artista, kritikari zein programatzaileak diskurtso-ekoizpenerako baldintza berriak sortzeko aritu dira lanean. Hainbat formatu ezberdin erabiliz (artistekin elkarrizketak, elkarrizketa maratoiak, legoaiari buruzko proiektu kuratorialak, konferentzia-performaceak, eskola eta komunitate kritikoak, Interneteko plataformak, etab.) artearen diskurtsoari loturiko konbentzioak kritikatu eta berritu dira. Gaur egun, ikerketa teoriko eta kritikoari dagokionez gai nagusienetako bat praktika artistikoen dimentsio performatiboa den bitartean, artista askok ez dituzte beti onartzen euren aplikatzen zaizkien analisi ereduak, eta beraien tresna teoriko propioak erakituzera jotzen dute, egiten dituzten performance eta programen bidez.

Horregatik erabaki dugu Koadernoaren bitartez ildo editorial bat zabaltzea, lanerako elementuak biraktibatu eta gai-gurutzaketa praktikatzeko gogoeta-baliabide bat izan dadin.

B

Futuro simple, futuro imperfecto
Espe López, Txubio Fdz Jáuregui

Ezin genezakeen pentsa honaino iritsiko ginenik,
etorkizun bat genuenik

Bai, baliatu behar zen etorkizun bat genuenik...

Etorkizun simple bat

edo etorkizun inperfektua

Etorkizuna simplea izan baitaiteke

edo inperfektua izan daiteke.

Eta geu gara proba begien bistakoa

Etorkizuna simplea eta inperfektua

denarena

«Volando voy, volando vengo...»

C

Montevideo (Versión 2)

Victor Iriarte

Koprodukzioa:

Mugatxoan 2011, Arteleku-Tabakalera,
Fundação de Serralves, Artium.

Mila esker:

Blanca Calvo, Ion Munduate, Amaia Urrea,
Espe López, Azala, Bulegoa Z/G,
Maite Arroitauregi Musergo,
Michela Depetris, Cristina Redondo,
Natxo Montero, Izibene Oñaderreta,
Arantza Heredia.

Posible al da aldi berean bi lekutan egotea? Teletransportatzea? Ikusgarri eta ikustezin izatea? Kaxa baten barruan desagertu eta milaka kilometrotara azaltzea? Bi pertsona berdin izatea bi leku ezberdinetan? Beste bat izatea?

O emanaldia. Otsailak 24 Biografiak

Txubio Fernandez de Jauregui (Vitoria-Gasteiz). Duela 49 urte jaio zen. Bere burua behartu ohi du beti zerbait egitera, ez ezertan pentsatzeko. Beraz, etengabe mugitzen den denboragaltze bat da. Gisa honetako galderak egiten dizkio bere buruari: Zenbat jende dago pentsatzen duen horretan sinesten duena eta edozer pentsatzen duena? Janaria ere prestatu ohi du, beste gauza batzuen artean. Egun, badaki guztia bere buruan dagoela eta gainontzeko gorputz guztia geratzen zaiola gauzak gordetzen jarraitzeko.

Espe López (Irun 1963 edo, nola pasatzen den denbora). Aktorea edo antzerkiko «aktibista». Antzerki proiektu ezberdinetan batetik bestera ibili ohi da, baina modu egonkorragoan Oscar Gómezek zuzentzen duen Suizako L'Alakran konpainiarekin aritzen da. Legaleon-T Teatro konpainiarekin hasi zuen bere ibilbide profesionala, eta orain Txubio Fdez.ekin batera konpainia hori hondotik ateratzen saiatzen ari da. Fisika kuantikoaren legeei erronka eginez, Eurovisionen aurrean eta denboran eta espazioan zehar irauten duten hainbat gauza surrealistaren aurrean bizirauten saiatzen da.

Victor Iriarte. Bilbo, 1976. Kazetaritzan lizentziatua eta zine dokumentalaren sorkuntzan masterra Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean. Zinean hasi nintzen Isaki Lacuestaren *Cravan versus Cravan* (2002) film luzean, zuzendari laguntzaile moduan. Orduz geroztik bateratu egin ditut lengoia zinematografikoaren irakaskuntza hiru urtean zehar Montevideo Unibertsitatean (Uruguai), ikus-entzunezko programaketa (Bilboko Arte Ederren Museoan eta Artelekun) eta arte sorkuntza. Nire lanak diziplina ezberdinak uztartzen ditu, zinetik testuaren erabilerara, argazkia, dantza, irudia mugimenduan, soinua, ekintzak e.a. Orain performatibitate/eszenikoa gailentzen da nire lanean, ikus-entzunezko teknologietatik pixkanaka aldenuz eta lehen pertsonan eta zuzeneko esperimeta-zio formal eta prozesual batetara hurbilduz.

0 emanaldia
Otsailak 25
18:00–21:00

A
Hacia una resistencia sin cuerpo
Manuel Cirauqui

Hacia una resistencia sin cuerpo Gregory Whitehead irrati-dramaturgoarekin izaniko (eta oraindik jarraitzen duen) idatzizko posta-truke bateko albo-ohar luze bat da. Bibliografian barna alderrai ibiltzeko aitzakia gisa eguneroko baten forma erabiliz, konferentzia honek erresistentzia kontzeptua bera eta honek transmisioaren alorrean duen baliozkotasuna eztabaidatzen ditu, transmisioa, kasu honetan, zehazki idazkera ekintza gisa ulertuz. 2011. urteko udazkenean zehar egindako zenbait etxeko- eta kaleko-grabaketek laguntzen dute testuaren irakurketa.

B
Sirocco
Inazio Escudero

Programazioa:
Enrike Hurtado (IXI software)
Aholkularitza:
Oihana Barandiaran, Arturo Tabares
(Hípika Butroi)

Finantzaketa:
Eusko Jaurlaritza

Nekez topa liteke hau baino artista oinarritzkoago, erraz eta bihurriagorik. Egoera publikoak besteontzat bidaia errentagarri bihurtzen ditu. Bere proposamenen itxurazko sinpletasunak sarri norbere baitako

autopsia bat (berr)aktibatzen du. Agian gutako batzuek ahaztua genuen hartzea eta kantu batekin iraultzaile izatea. Azken hilabeteotan proiektu berri batean ari da lanean, non prozesu teknologikoak jokaera lurtarrekin batzen dituen. Itxura batean, proposamen hau ez da hain pertsonala eta ohituta gauzkana baino estrukturalagoa da, baina latitude horietatik ere lortu egiten du.

C
Scripted Smalltalk: a performance
Krõõt Juurak

Scripted Smalltalk 60 minutuko performancea da non ikusleak gidoi bateko elkarrizketak irakurtzen ari diren. Gidoia tokiko hizkuntzara itzultzen da. Gidoiaren irakurketak egileak, ikusleekin batera, zuzeneko emankizunak suposatzen duena ulertzeko egiten duen saiakera islatzen du, modu horretan «arrainontzia» deitzen den horretatik ihes eginez, hori baita gertatzen dena ekitaldi parte hartzaile guztietan. Hala ere, elkarrizketek kontrolari men egiteari uko egiten diote eta pentsamendu prozesuak alor azaleko eta lausoetan galtzen da. Egileak gidoiak musika-tarteetan banatzen ditu.

O emanaldia. Otsailak 25
Biografiak

Manuel Cirauqui idazlea eta erakusketetako komisarioa da. Egun New Yorkeko Dia Art Foundation-entzat dihardu lanean, Curatorial Fellow gisa. Irratiari, soinu-arteari eta musika esperimentalari buruzko makina bat saioren egilea da, eta *Bomb* (AEB), *Frieze* (EB) eta *20/27* (FR) aldizkarietan idatzi ohi du. Oraingo honetan, irratirako idatzitako bi hitzaldi aurkeztuko ditu: *Hacia una resistencia sin cuerpo* eta *Tanatofonías*.

Inazio Escudero (Bilbo, 1972). Rock taldeetan hasi zen eta Arte Ederren ikasketak burutu zituen ikus-entzunezkoen alorrean. Zenbait urtez Zürich edoartzelona gisako hirietan bizi izan ostean, 1998an Bilbora itzuli zen eta arte jarduera irakaskuntzarekin uztartu zuen, bideo edizio eta posproduzio irakaslea baita. Bere lanak hainbat galeria, arte museo, musika jaialdi, kontzertu areto edo/eta espazio autogestionatutan aurkeztu izan dira, hala nola, Bilboko Arte Eder Museoa; Leongo MUSAC; Bilboko Rekalde aretoa, Bordeleko Galerie du Triangle; Barzelonako ADN Galeria; Madrildo Sala Alcalá 31; Gasteizko Montehermoso; Iruñeko Moisés Pérez de Albeniz Galeria; Bilboko Musicaexmachina jaialdia; Tolosako Bonberenea; Bilboko Club Le larraskito edo Palma de Mallorcako La Fundación A.C.A.

Krööt Juurak (1981, Tallinn, Estonia) koreografoa, interpretea eta irakaslea da. Arnhem-ko Arteen Institutuan koreografia ikasketak egin zituen eta Amsterdameko Gerrit Rietveld Akademian Ikusizko Arteenak. Egun, Vienan bizi da eta bertan egiten du lan. Honako lanok zuzendu eta burutu ditu: *Mira Mira* (Anne Jurenekin batera), *Una Vez*, *Burning Down the House* (Laura Kalauzeekin), *A Text is a List of Effects of Being Exposed to the Vacuum of Outer Space und eine Parataxe ist eine in sich selbst faltende Falle* (Ralo Mayerrekin). Lan hauek Europako eta haragoko hainbat antzerki plataformatan aurkeztu dira. EVERYBODYS proiektuarekin, Ficción Multiplex Internacional Festival-ekin eta Chichs on Speed-ekin kolaboratzen du. Egun esku artean dituen proiektuak hauek dira: *Autodomestication* (lan afektiboa-artistak eta etxeko animaliak), *Ride the Dude Wave*, *Burn Your Boats* (Marten Spångberg-ekin).

O emanaldia
Otsailak 26
18:00–21:00

A
Tanatofonías
Manuel Cirauqui

Tanatofonías ardurua metafisikoak dituen irratsaio faltsu baten itxura hartzen du, eta zenbait pastiche arrazionalistaren lotura lana egiten du. Pieza honi izena ematen dion neologismoak heriotzaren mundua iturri nagusitzat duten soinu-fenomeno guztiak izendatzen ditu. Horiek entzuteko irratia beti izan da eta da tresna sentikorra eta erabilgarria, ouija-ren ondorengo elektrikoa. *Tanatofonías* 1934an Bartzelonan ospatu zen Nazioarteko Espiritista Kongresuari egindako ekarpen berantiarra da.

B
(...continuará) o en el camino o...
Loreto Martínez Troncoso, Lore Gablier

(continuará) o en el camino o... ... edo noiz arte? edo... nondik dator hitz egiteko/ esan /nahi izateko) mania hau? Edo... dena esan nahi izatearen poderioz, ezer esan gabe geratzen ote gara? Edo... min ez ere kantatzen al da, negar egin ezin denean (?) Eta hitz egiten du(t)en ni hori, ni horiek, nor d(ir)a? Zer diot-e eta zer isiltzen dut-e? Zer diot-e isiltasunaren bidez eta zer isiltzen dut-e hitz eginez. Nor... [—inor ba al da hor?] dago hor? Nori, edo norentzat, hitz egiten dut-e (?) Edo... bakarrik eta egingo dut bakarrik edo elkarrekin egingo dugu bakarrik eta?

Oharra: *(continuará) o en el camino o...* abian den edizio baten izenburua da. Hiru hitz hartzetik abiatzen den edizioa da: Por el momento sin título, Sans titre pour l'instant eta Finalmente ¿con o sin título? Hitz horiek hartzea, ez hainbeste hautaketa bat bezala, bilduma bat bezala baizik, eta «hitza hartzearen» ekintzari berari buruz gogoeta egiteko eta idazteko aitzakia gisa.

C
Ahora
Sandra Cuesta

Proiektu honetan landu beharreko materia korapilatutako formen ikerketatik eta sinbolikoki korapilatzearekin lotuta dauden irudien bilaketatik sortzen da; entzumen, aizkora, harria, hankak, korapiloa, labirintoa, hestea, (itsasontzia). Irudiok, idazkera piktografiko eran artikulatuta, aukera eskaintzen dute horietako bakoitzetik garatzen den materialetik abiatuta barne-pentsasmendu ibilbide bat markatzeko, ondoren, euskarri ezberdinetara eramanez litekeena objektu gisa, soinu edo marrazki gisa.

Soinua da espazio batek aktibazioa gindatzen duen elementu artikulatzailea. Espazio bakar bat, gailu bat, non soinuaren eta zentzuaren ibilbideak ikusgarri egiten diren. Korapilatzea jario batekin eta kanporantza zuzendua dagoen funtsezko pultsu batekin lotzen da, bigarren pertsonarekin.

O emanaldia. Otsailak 26
Biografiak

Loreto Martínez Troncoso (Vigo, 1978); Oporton eta Parisen bizi da eta bertan lan egiten du. 1999an Vigoko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatek Bordelako Arte Ederren Eskolara eta Lyongo Arte Ederren Eskola Nazionalera joan zen ikasketak amaitzera. Hurrengo urteetan, hainbat beka jaso zituen hiri ezerbinetan egonaldiak egiteko, hala nola, Budapest, Hendaian, Donostian, Leonen, Oporton eta Parisen. Burutu dituen erakusketa eta ekintzen artean, honako lekuetan egindakoak dira aipagarriak: Les Laboratoires d'Aubervilliers (Paris), Centre Georges Pompidou (Paris), Mugatxoan/Arteleku/Serralves (Donostia/Oporto); edo honako talde erakusketok: *Urbanistas* (MARCO, Vigo, 2006), *Arte e investigación 07* (Montehermoso Kulturunea, Vitoria-Gasteiz); *El medio es el museo* (MARCO, Vigo / Koldo Mitxelena, Donostia, 2008), eta *Entrar na obra.1* (MARCO, Vigo), azken hau, bakarkako erakusketa.

Lore Gablier. 2004an diplomatu zen Valenceko École Régionale des Beaux-arts-en. Ondoren praktika kuratorialari lotutako ikasketekin jarraitu zuen, Grenobleko École du Magasin-en. Bertan, *Un Pas de côté* programako antolatzaile-kide izan zen 2006an. Ideologia alternatiboei eta konpromiso politikoari buruzko topaketa programa izan zen eta Simone Forti artista amerikarrari buruzko erakusketa bat ere izan zuen. 2007an, Art conceptuel: une entologie (ed. MIX) liburuaren itzulpena egin zuen kolektiboan parte hartu zuen eta 2008an, *Les Chroniques Popescu* (ed. BC & compagnie) editatu zuen, Ghenadie Popescu artista moldaviararren proiektu bat. 2009an Brétigny-ko Centre d'art contemporain-en, Stuttgart-eko Künstlerhaus-en eta Portoko Culturgest-en aurkeztu zen *Cornelius Cardew et la liberté de l'écoute* erakusketako lau komisarioetako bat izan zen bera. 2008az geroztik, Gentillyko Générateur-en, Parisko eskualdean, komisario gonbidatua da. Han hasi zuen Anne Dreyfusekin batera, 2009ko urrian, *frsq*-en lehen edizioa, performancearen urteroko topaketa. Topaketa honetaz kanpo egiten diren Générateur-eko edizioen arduradun ere bada. École du Magasin-eko formakuntza programa koordinatzen du 2009az geroztik.

Sandra Cuesta. Arte Ederretan lizentziatua UPV-EHU-n eskultura espezialitatean. 1999an Mugatxoaneko tailerrak egin zituen La Ribot, Jérôme Bel, Ion Munduate eta Blanca Calvorenkin, eta 2010an Marten Spangberg, Inazio Escudero, Itziar Okariz, Xabier Leroy eta Gary Stevensekin batera. Bere lanaren ardatza zuzeneko egoerak aktibatzea dakarten proiektuetan datza, horien jarraipen gisa bideo-grabaketa geratzen delarik. 2002 bakarka hasi zen lanean, bere lehen performancearekin *Dora Dream* (Mugatxoanek ekoiztua) eta horren ostean, *La verdad de Dora (Dora Dream)*, *La Otra Mujer; A long way back (Orden Imaginario#17)* eta *Ahora (funciona en tu sangre)* bideoak egin zituen. 2007an Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Artista Gazteen XLIII. Lehiaketan accesita jaso zuen *La presentación* bideoagatik. Proiektu hori Larraitz Torresekkin batera abiatu zuen Colombina's izenburupean eta honako performance hauetan izan zuen jarraipena: *La Presentación II* eta *La Presentación III*; Gasteizko Artiumen (Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa), Leongo MUSACen (Gaztela eta Leongo Arte Garaikideko Museoa) eta Madrilgo Casa Encendidan aurkeztuak. 2009an, Colombina's-ek *Vécinis, Bandurrias y Guateques* dokumentala egin zuen eta 2010ean, Blanca Calvorenkin batera, *Mugatxoan Hamar* dokumentala osatu zuten. Egun, Colombina's-ek musika talde gisa daraman lan egiteko modua, bere ekoizpen artistiko proiektorekin uztartzen du.

0 emanaldia

Otsailak 24, 25 eta 26, 18:00etatik 21:00etara
Sarrera doan. STMko Laborategi aretoan

Saioaren gidariak:
Ion Munduate, Blanca Calvo

Kanpoko berriemailea:
Amaia Urra

Formatu aldagarria izango duen saioa, honako gonbidatuok aktibatutakoa:
Víctor Iriarte, Manuel Cirauqui, Loreto Martínez Troncoso, Lore Gablier,
Sandra Cuesta, Inazio Escudero, Krõõt Juurak, Espe López,
Txubio Fdz. de Jáuregui

Soinua eta irrati-instalazioa:
Audiolab

Diseinu grafikoa
Joaquín Gáñez

Artelekuko ekoizpen taldea eta talde teknikoa:
Natalia Barbería, Maitane Otaegi, Daniel Artamendi

Mugatxoan 2011 honako kideekin elkarlanean ekoiztutako proiektua da:
Arteleku-Tabakalera (Donostia); Fundação de Serralves (Porto)
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta San Telmo Museoaren laguntzarekin.



SERRAVES



STM
San Telmo Museoa